



IRAKASKUNTZA IKASKUNTZA BALIABIDE DIGITALAREN BIDEZ



LURRALDE TOPAKETAK

2015-12-03 GASTEIZ

2015-12-10 LASARTE

2015-12-10 BILBO

2015ko abenduan Sarean Elkarteko Lurralde Topaketak burutu ziren Gasteizen, Lasarten eta Bilbon. Ikasturte honetan aukeratutako gaia **"IRAKASKUNTZA IKASKUNTZA BALIABIDE DIGITALAREN BIDEZ"** izan da.

Euskal Eskola Publikoa 80. hamarkadatik, hasi zen teknologia berrien inguruko urratsak ematen. Hezkuntza Sailak urte hauetan material desberdinak banatu ditu ikastetxeetara eta ikastetxe askok, batez ere 90.hamarkadatik aurrera, inbertsio handiak egin dituzte.

Urte hauetan plan desberdinak egon dira:

1. Ikastetxeak material teknologikoaz hornitzeko

- **Premia Planaren** barnean ikastetxeetan ordenagailuak, kanoiak, pantailak, inprimagailuak jaso ziren eta ordenagailu sareak ere ipini ziren.
- **Berriztu planari** esker zaharkituak zeuden ordenagailuak berritzen joan dira.
- **Eskola 2.Oren** (2009-10) barnean Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako gelak hornitu ziren: arbel digitala, wifi-a eta ikasle bakoitzarentzat miniordenagailua.

2. Irakasleak prestatzeko

- **Garaturen** bidez, IKT teknologiaren inguruan formazio pertsonala jasotzeko aukera dago.
- **Ikastetxeko formazio plana:** IKT teknologien inguruan ikastetxeak dituen behar edota interesen arabera diseinatu dira planak.
- **Eskola 2.Oren** barnean Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako irakasleentzat Berritzeguneetan antolatutako formazioa. Formazioa, web2.0 filosofian oinarritu zen. Ikaslea kontsumitzailea izatetik (informazioa jaso, ariketak egin, ...) sortzailea izatea pasa nahi zen. Horregatik, WEB 2.0an dauden programa desberdinak ezagutzen aritu ziren irakasleak, gero ikasleekin erabili ahal izateko.

3. Ikastetxearen antolakuntzan IKTaren erabilpena areagotzeko

- **IKT Ikastetxe Eredu Proiektua (Madurez TIC)**

Urte hauetan egindako ibilbidearen ondorioz, gaur egun Euskal Eskola Publikoko ikasle denak, HHTik hasita, Teknologia digitalekin harreman zuzena dute nahiz eta, ikastetxe, irakasle eta adinaren arabera erabilpen maila desberdinak izan.

Orain, Hezkuntza Sailak beste urrats bat eman nahi du. Ikastetxeetan, material inpresoaren ordez material digitalaren erabilpena bultzatu nahi du. Hori dela eta,

testu liburu solidarioaren programa desagertzeko asmoa dago eta horren ordean, **Sare Hezkuntza programa** orokortu nahi dute.

Ez da lehen aldian SAREAN elkarteko kideak gai honen inguruan aritzen garela. 2010eko maiatzaren 27an "Eskola Digitalizazioratz" lemapean burutu ziren, Donostian, SAREAN Elkarteko 28. Topaketetarako. Oraingoan, gaur egungo egoeratik abiatuta aurrera pausoak emateko dauden beharrak detektatu eta hobetzeko eskaerak edota proposamenak aztertzea da Lurralde Topaketa hauen helburua.

Lurralde Topaketa hauetan 118 irakasleek parte hartu dute:

Arabian 34

Bizkaian 30

Gipuzkoan 54

Hiru lurraldeetako partaideak lan taldeetan esandakoa eta ikastetxeetara bidalitako galdeketen erantzunak kontuan hartuta osatu da Lurralde Topaketaren emaitzen txostena.

Txosten hau honela osatu da:

1. Ikastetxeen egoera
 - Gaur egun baliabide digitalaren erabilera geletan
 - Gaur egun geletan dauden baliabide digitalak
2. Irakaskuntza ikaskuntza baliabide digitalaren bidez burutzeko beharrezko azpiegitura
 - Geletan behar diren baliabideak
 - Beharrezkoak diren beste azpiegiturak
3. Baliabide digitalaren erabilera gelan, zertarako?
4. Irakasleen formazioa
5. Irakaskuntza ikaskuntzaren digitalizazioan aurre-pausoak emateko proposamenak
6. Egoera hobetzeko administrazioarentzat proposamenak

Eranskina: Laburpena

Mila esker Lurralde Topaketetan parte hartu duzuen guztioi zuen ekarpenari esker egin baita txosten hau.

1.-IKASTETXEEN EGOERA


Irakaskuntza ikaskuntza prozesuan baliabide digitalak erabili behar direla garbi dago eta jadanik eskola guztietan erabiltzen dira. Haur Hezkuntzatik hasi eta *maila guztietan erabili behar dira* era naturalez gure ikasleak natibo digitalak baitira.


Baina, Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleen adina kontuan hartuz, eta ikasteko garaian zenbat eta adin txikiagoa izan manipulazioak garrantzia handiagoa duenez, *baliabide digitalak ohiko beste baliabideekin uztartu* behar dira. Adinaz aurrera doazen heinean baliabide digitalaren erabilpena nagusitzen joango da.

Bestalde, baliabide digitalaren erabilpena orokortzearekin eta normalizatzearekin batera, *ikastetxeetan, irakaskuntza ikaskuntzaren inguruko gogoeta ematea* beharrezkoa da. Baliabide hauek ematen dizkiguten aukerak eta sortzen dituzten beharrak kontuan hartuz ikasleekin *landu beharreko konpetentziak eta irakaslearen rola birplanteatu* behar da. Aldaketa hauek ez badira ematen itxura aldatuko dugu baina XXI. mendeko gizartera egokitze konpetentziak ez ditugu garatuko gure ikasleekin.

GAUR EGUN BALIABIDE DIGITALAREN ERABILERA GELETAN

Gaur egun, irakaskuntza ikaskuntza prozesuan egiten den baliabide digitalaren erabilpenaren inguruan honako erantzunak jaso dira:






Azalpenak emateko asko erabiltzen dira baliabide digitalak. Gelan arbel digitala izateak erraztu egiten du eta proiektorea edota arbela mugitzen jarduteak edota gela berezi batetara joateak erabilpena oztokatzen du.

Adin guztietako ikasleek, bakarka edota binaka, ordenagailuak erabiltzen dituzte. Eskola gehienetan Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzako lehen eta bigarren zikloan, ordenagailu bat edo bi dagoelako gehienez gelan, noiz behinka edota txandaka erabiltzen dituzte.

GAUR EGUN GELETAN DAUDEN BALIABIDE DIGITALAK

Hezkuntza Sailak edota ikastetxeek egin dituen inbertsioen ondorioz, gaur egun geletan ditugun baliabide digitalak honela daude banaturik.



Arbel digitala: Haur Hezkuntza etapan oso gutxi daude. Lehen hezkuntzan zikloz igotzen den haina gela gehiagotan aurkitzen dira. Hirugarren zikloan eskola 2.0 dela eta gela gehienetan daude.



Ikasle bakoitzak bere ordenagailua: Eskola 2.0 dela eta hirugarren zikloan orokortuta dagoela esan dezakegu, nahiz eta eskola batzuetan metodologia dela eta denak batera ez dituzte erabiltzen. Beraz, ikastetxe batzuetan duten metodologiaren ondorioz nahiago dute gelan ordenagailu batzuk izatea dagokion taldeak, edota ikasleek lan egiteko. Bestalde, beste zikloetan ikasle bakoitzak bere ordenagailua izatea eskola gutxi batzuetan bakarrik ematen da. Esan dezakegu ikasle gutxi dituzten eskoletan errazagoa dela ordenagailu bat izatea ikasle bakoitzak.

Tablet-aren erabilpena: askoz gutxiago erabiltzen dira gure ikastetxeetan. Ikastetxe gutxi dira tabletaren apustua egin dutenak.

Gelan ordenagailu edo tablet batzuk: Ikastetxe gehienetan, ordenagailua bat edo bi daude gela guztietan. Ikastetxe gutxi batzuetan bakarrik daude ordenagailu kopuru handiagoa gelan hau da, talde batek lan egiteko haina ordenagailu.

2.- IRAKASKUNTZA IKASKUNTZA BALIABIDE DIGITALAREN BIDEZ BURUTZEKO BEHARREZKO AZPIEGITURA

Azpiegitura egoki bat izateak edo ez, irakaskuntza ikaskuntza prozesuan baliabide digitalaren ohiko erabilpena erraztu edota oztopatzen du . Geletan behar diren baliabide digitalak eta ikastetxean behar diren beste azpiegiturak aztertu dira.



- *Konexio azkarra behar da.*

Interneteko irteera egokia ez badago, erori egiten bada sarea, ezin izango da orokortu baliabide digitalaren erabilpena. Hau da gaur egun dagoen arazorik larrienetakoa.

- *Gelak hornitzeko, zaharkituak dauden materialak berristeko eta hondatzen edo galtzen den materiala ordezkatzeko plana egon behar du.*

Haur eta Lehen Hezkuntzako gela gehienak ez daude behar bezala hornituta. Ikastetxe batzuk diru inbertsio handia egin dute baina gehiengoak ezin izan du egin diru faltagatik. Bestalde, kontuan hartu behar da materiala digitala azkar zahartzen dela (4 urteko iraupena) eta ikastetxeetan material zaharkituarekin jarduten ari garela.

Behar den oinarritzko hornikuntza:

- Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzako 1 eta 2 zikloko geletan arbel digitalak
- Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzako 1 eta 2 zikloko geletan interneterako konexioa
- Haur eta Lehen Hezkuntzako 1 eta 2 zikloko geletan ordenagailu edota tableta batzuk: Irakaslearentzako eta gelarako (6-7?)
- Arazo teknikoak konpontzeko zerbitzu ona eta azkarra behar da.
- Hondatzen edo galtzen den materiala ordezkatzeko sistema azkarra izan behar dugu. Baliabide digitalen inguruko aseguratzeak izateak izan beharko genituzke
- *Gizarte osoa IKT mundura sartzeko aukerak berdintzeko sistemak sortu beharko lirateke.*

Ikastetxeko lanak etxean jarraipena izateko gure ikasleen etxeetan baliabide digitalak eta interneteko konexioa izatea ziurtatzea komeniko litzateke. Bestalde, eskola eta etxearen arteko koordinazioa baliabide digitalaren bidez egiteko aplikazioak beharko genituzke

3.-BALIABIDE DIGITALAREN ERABILPENA GELAN, ZERTARAKO?

Gizartean gero eta gehiago erabiltzen eta erabiliko dira ICTak. Bizitzako edozein alorretan erabiltzea beharrezkoa izango da: lanean, denbora librean, administrazioarekin gestioak egiteko, komunikatzeko...

Gainera, gure ikasleak natibo digitalak izanik eskolatik kanpo ere erabiltzaileak dira. Teknologien mundua gustatzen zaie eta ikasteko gu baino erraztasun handiagoa dute. Baina erabiltzea ez da nahikoa, ikasleei konpetentzia digitalak irakatsi behar zaizkie: Tresnak erabiltzea, baina era segurua eta kritikoan.




Konpetentzia digitalak irakasteko testu liburuak digitalizatzea ez da helburua. Lehengo eskema berdinekin jarriztea izango litzateke eta ICTak ematen dituzten aukera guztiak ez erabiltzea, ez aprobetxatzea izango litzateke.

Informazio eta Komunikazio Teknologia ematen dituzten aukerak erabili behar dira konpetentziak garatzeko, eta horien artean Konpetentzi digitalak.

Ikasleek beraien ezaguera sortu behar dute eta horretarako planteatu behar zaizkien ikasketa esanguratsuak izan behar dute, errealak, beren interesetatik hurbil daudenak edo beraien aukeratutakoak. Ezaguera sortzeko, lehenbizi informazioa bilatu beharko dute, eta internet informazioa bilatzeko tresna egokia da, baina erakutsi behar diegu, informazioa bilatzen, aukeratzen, kritikoa izaten, ordenatzen eta erlazionatzen gure beste ezaguerarekin. Horrela ikasleak bere ezaguera sortuko du. Ezaguera hori komunikatzen eta konpartitzen ikasi behar du.

Bestalde, IKT aukera emango digute hau dena taldean egiteko, eskolan eta etxean egiteko. Hau da, ikasleak tresnak erabiltzeaz gain, informazioa tratatzen, taldean lan egiten eta komunikatzen ikasi behar dute. *Bizitza osorako baliagarria izango diren gaitasunak landuko dituzte eta batez ere, ikasten ikasiko dute.* Guzti hau egiten duten bitartean programa informatiko desberdinak erabiltzen ikasiko dute hauek izango baitira erabiliko dituzten tresnak.

Baina bestalde, teknologia berrien erabiltzaile bezala era jatorrean erabiltzen ikasi behar dute, inor kaltetu gabe eta daude arau edo legedia ezagutu behar dute. Jakin behar dute Teknologia Berrien erabilpenak dituen arriskuak eta hauengandik nola babestu. Beraz, IKTekin lotuta baloreak eta elkarbizitza landu behar da.




IKTaren erabilpenarekin sarean aurkitzen dugu behar dugun informazioa. Beraz, garbi dago *irakaslearen funtzioa ez dela informazioa transmititzearena baizik eta ikaskuntza prozesuan ikaslea laguntzea, bideratzea.*

Irakaslea da irakaskuntza ikaskuntza prozesua kudeatzen duena, zer irakatsi behar duen eta nola eta noiz. Baina kontuan hartu behar dugu ikastetxe bakoitzak bere metodologia duela beraz, irakasleen lana errazteko beharrezkoa litzateke euskarazko testu liburu digitalak izateaz gain eta euskarazko materiala aurkitzeko plataformak, software eta eduki libreen plataformak eta WEB 2.0 dauden tresnak euskarara itzultzea.

Dena den, ikastetxeetan IKTaren erabilpenak orokortzeak eta areagotzeak ikastetxe gehienetan gogoeta egiteko beste aukera bat irekitzen du: Metodologia, irakaslearen papera, kompetentziak, zer ebaluatu eta nolako ebaluazioa, berdin arteko tutoretza ,...

Hala ere, hainbat ikastetxeetan gogoeta hori egina dute eta daramaten metodologiak aukera ematen du IKT txertatzeko eta konpetentzi guztiak lantzeko.



4.- IRAKASLEEN FORMAZIOA

Konpetentziak garatzeko eta IKTK erabilpena aukerak orokortzeko ezinbestekoa da irakaslearen rola aldatzea. Horretarako *ezinbesteko da gogoeta eta formazioa*. Gogoeta zer nora iritsi nahi dugun jakiteko eta iristeko eman behar ditugun urratsak eta formazioa diseinatzeko. Beraz, *ikastetxe bakoitzak diseinatu beharko luke bere plana administrazioaren bultzadarekin eta Berritzeguneko aholkularitzarekin*.

Orokorrean, ondorengo **formazio atalak** behar dugula aipatu da:




- metodologiengintza inguruan
- programak, aplikazioak
- tresnen inguruko arlo tekniko minimo bat
- seguritate neurriak

Baina garbi izan behar dugu dena jakitea ezinezkoa dela eta ikaslearekin batera ikasten joango garela. Beraz, Iktak erabiliz ikasten joango gara.

Formazioa orokortzeko kontuan hartu beharrekoa:

- Klaustroaren formazioa burutzeko *ikastetxean* bera da gune egokiena.
- *Irakasleen beharretatik oinarritutako formazioa* izan behar du eta berehala erabiltzeko modukoa.
- *Berdinen arteko formazioa*, hurbilago izanik efektiboena da. Ikastetxe bertako irakasleak elkar irakasteko unean sortu behar dira.
- *Ikastetxe bakoitzak bere formazio plana* diseinatzeaz gain, *talde dinamizatzailea* sortzea beharrezkoa ikusten da. Talde honetan ziklo bakoitzean kide bat egotea komeniko litzateke. Hauek formazio sakonagoa jasoko luke eta denbora izan beharko lukete bere lana burutu ahal izateko.

Klaustroen prestakuntza mailan asko hobetu behar da baina ikasteko nahia badago. Dena den, formazioa burutzeko denbora izatea ezinbestekoa da. ***Hezkuntza Sailak bere RPTan ikastetxeko dinamizatzaile lanak burutzeko denbora eskaintzea ezinbestekoa da***. Baldintza hau ez bada betetzen ezinezkoa izango da behar diren aldaketak burutzea.





5.- IRAKASKUNTZA IKASKUNTZAREN DIGITALIZAZIOAN AURREPAUSOAK EMATEKO PROPOSAMENAK

Irakaskuntza ikaskuntza prozesuan baliabide digitalaren erabilpena handitzeko beharrezkoa ikusten da ikastetxe guztietan burutuko den oinarritzko plan bat izatea. Ikastetxe bakoitzaren ezaugarriak direla erritmo desberdinak egon daitezke baina desberdintasunak ez areagotzeko plan orokor bat izatea komeni da.

- Hezkuntza Sailak Eskola Publikoetako *gela guztietan dispositibo digitalak ezartzeko plana* diseinatzea:
 - Plan honek, ikastetxe bakoitzaren ezaugarrietara egokitze aukera izan beharko luke ikastetxearekin batera adostuz. Orokorrean, gela guztietarako material minimoa ziurtatu behar da.
 - Honako beharrak detektatu dira: gela guztietan arbel digitalak, irakasle bakoitzarentzat ordenagailua eta geletako ordenagailu batzuk.
 - Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleen ezaugarriak kontuan hartuz haur hezkuntzan eta lehen hezkuntzako lehen zikloan ikasle guztiak bere ordenagailua izatea ez da beharrezkoa ikusten; egokiagoa ikusten da gelan ordenagailu batzuk izatea taldeka ikasleek lan egin ahal izateko.
- Ikasleek erabiliko dituzten *dispositiboen ordainketarako testu liburu solidarioen antzeko sistema ezartzea.*
- Erabilpena erraztuko duen *azpiegitura* ona izatea.
 - Gela guztietan *konexio* sistema ona eta azkarra.
 - Baliabide digitalak azkar *konpondu, berritu edota ordezkatzeko egitura.*
- Irakasleen etengabeko *formazio* sistema izatea: konpetentziak garatzeko metodologiak, programak, aplikatiboak...
 - Ikastetxean bertako formazioa indartu.
- *IKTko dinamizatzaile taldea* osatu eta bere lana burutzeko denbora izan.
- *Ezagueraren gestioa burutuko duen plataforma bakarra* eta hau kudeatuko eta eguneratuko duen lan taldea. Euskarazko materiala, sailkatuta aurkitzeko plataforma. Dagoen materiala, eskoletan sortzen dena edota itzultzen dena gorde eta sailkatuko aurkitu daitekeen plataforma.

- *Ikastetxe guztiak bere digitalizazio plana izatea eta hau ikastetxeko Hezkuntza Proiektuan txertatzea: irakaskuntza ikaskuntza digitala, formazioa, tresnerien antolaketa...*



6.- EGOERA HOBETZEKO ADMINISTRAZIOARI EGITEKO PROPOSAMENAK

Txostenean jasotakoa kontuan hartuta Hezkuntza Sailari eskatzen diogu:

- Eskola Publikoen arteko desoreka nabarmenak ez sortzeko Plan orokorra diseinatzea eta eskoletara zabaltzea:
 - Urtez urte jarraipena izango duen proiektua.
 - Eskola bakoitzaren ezaugarrietara egokitzeko malgutasuna izango duena. Proiektua burutzeko ikastetxea eta administrazioaren arteko elkarlanean burutzea.
- Administrazioak plan hau burutzeko inbertsio ekonomiko handiagoa egitea Hezkuntza Publikoan.
- Erabilpena erraztuko duen azpiegitura ona izatea.
 - Arazo teknikoak konpontzeko sistema azkarra eta erraza izatea
 - Konexio onak
 - Geletan hornikuntza egokia
- Plan hau burutzeko ikastetxeetako irakasleek denbora izatea eta Lanpostu Zerrendetan kontuan izatea:
 - Ikastetxe guztietan Teknologia Berrien arloa koordinatzeko eta dinamizatzeko ezinbestekoa den arduraduna edota taldearen orduak kontuan hartu Lanpostu Zerrendetan.
 - Irakasle guztiek denbora izatea formazioa jasotzeko, materialak prestatzeko, koordinazio burutzeko...
- Teknologia Berrien arduradunari formazio zabala batez ere pedagogiaren ikuspuntutik eta eskolan arloko dinamizatzailea izateko.
- Berritzeguneko aholkularitza izatea, ikastetxeko plana diseinatzeko eta formazioa jasotzeko.
- Ezagueraren gestioa burutuko duen plataforma bakarra izatea.
- Ikastetxeak kudeatzen ari diren Zuzendaritza Taldeak Lurralde Topaketetan jasotako iritziak kontuan izatea eta hobekuntzak ezartzea.

Informazioa eta Komunikazioa Teknologiekin aspaldi hasi ginen baina oraindik badago zer egina. Proiektu bat sendotzeko planifikazioa eta denbora behar da. Ibilbide honetan denon indarrak, lanak elkartuz, konpartituz aurreratzen joango gara uste dugu Sarean Elkartea bidelagun izateko prest azaltzen da.

IKASTETXEAK DIGITALIZAZIORATZ JOATEKO KONTUAN HARTU BEHARREKOA

- Baliabide digitalak maila guztietan erabiltzea komeni da.
- Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleen adina eta garapena kontuan hartuz baliabide digitalak ohiko beste baliabideekin uztartzea komeni da.
- Baliabide digitalaren erabilpena orokortzearekin eta normalizatzearekin batera, ikastetxeetan, irakaskuntza ikaskuntzaren inguruko gogoeta ematea beharrezkoa da: Metodologia, irakaslearen papera, kompetentziak, zer eta nola ebaluatu, berdinen arteko tutoretza ,...
 - Baliabide hauek ematen dizkiguten aukerak kontuan hartuz ikasleekin landu beharreko kompetentziak eta irakaslearen rola birplanteatu behar da.
 - Kompetentzia digitalak irakasteko testu liburuak digitalizatzea ez da helburua. Bizitza osorako baliagarria izango diren gaitasunak landu behar dira: ikasten ikasi, elkarrekin bizitzen ikasi, komunikatzen ikasi, norbera izaten ikasi, ekimenez jokatzen ikastea, sortzailea izatea ...
 - Irakaslearen funtzioa ez da informazioa transmititzea baizik eta ikaskuntza prozesuan ikaslea laguntzea, bideratzea. Irakaslea da irakaskuntza ikaskuntza prozesua kudeatzen duena, zer irakatsi behar duen, nola eta noiz.
- Ikastetxe guztiak bere digitalizazio plana izatea eta hau ikastetxeko Hezkuntza Proiektuan txertatzea: irakaskuntza ikaskuntza digitala, formazioa, tresnerien antolaketa ...
- Ikastetxe bakoitzak diseinatu beharko luke irakaslearen formazioaren plana administrazioaren bultzadarekin eta Berritzeguneko aholkularitzarekin. Landu beharreko atalak:
 - metodologiaren inguruan
 - programak, aplikazioak
 - tresnen inguruko arlo tekniko minimo bat
 - seguritate neurriak

ADMINISTRAZIOARI ESKAERA

- Eskola Publikoen arteko desoreka nabarmenak ez sortzeko Plan orokorra diseinatzea eta eskola guztietara zabaltzea. Plan honek eskolen beharretara egokitzeko aukera izatea.
- Administrazioak plan hau burutzeko inbertsio ekonomiko handiagoa egitea Hezkuntza Publikoan.
- Sailak Eskola Publikoetako gela guztietan dispositibo digitalak ezartzeko plana diseinatzea eta ikastetxeekin adostea . Ikastetxeek AZPIEGITURA egokiak izatea.
 - Konexio azkarra.
 - Gelak hornitzeko, zaharkituak dauden materialak berristeko eta hondatzen edo galtzen den materiala ordezkatzeko plana.
 - Behar den oinarritzko hornikuntza:
 - Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzako 1 eta 2 zikloko geletan arbel digitalak.
 - Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzako 1 eta 2 zikloko geletan interneterako konexioa
 - Haur eta Lehen Hezkuntzako 1 eta 2 zikloko geletan ordenagailu edota tableta batzuk: Irakaslearentzako eta gelarako (6-7?)
 - Arazo teknikoak konpontzeko zerbitzu ona eta azkarra.
 - Hondatzen edo galtzen den materiala ordezkatzeko sistema azkarra . Baliabide digitalen aseguruak
 - Ikasleen familiak IKT mundura sartzeko aukerak ziurtzako laguntzak.
- Irakasleen lana errazteko beharrezkoa litzateke euskarazko testu liburu digitalak izateaz gain eta euskarazko materiala aurkitzeko plataformak, software eta eduki libreen plataformak eta WEB 2.0 dauden tresnak euskarara itzultzea.
- Hezkuntza Sailak bere RPTan ikastetxeko dinamizatzaile lanak burutzeko denbora eskaintzea .
- Ikasleek erabiliko dituzten dispositiboen ordainketarako testu liburu solidarioen antzeko sistema ezartzea.
- Ikastetxeak kudeatzen ari diren Zuzendaritza Taldeak Lurralde Topaketetan jasotako iritziak kontuan izatea eta hobekuntzak ezartzea.